



Iturria: *Teatro osoa euzkeraz (I)*, Antonio Labayen.
La Gran Enciclopedia Vasca, 1976.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LabaienTxinparta.htm>

TXINPARTA BURUZAGI

Antonio Maria Labaien

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

TXINPARTA BURUZAGI
edo
IRUGARREN KARLATAR GUDATEA

Iru ataletan

Labayen'dar Andoni Mirenek idatzia
1920 garren urteko indar-neurtzetan saritua



I. ATALA

LENENGO IRUDIA

Txinparta, Andre Felixa eta Margerite.

*(Jangela bat izanik; mai bat, aulki batzuek
eta oi diran ontzi eta abar abar)*

TXINPARTA: Edozein aitzeki dala ta bidali ezazu alaba sukaldera; zurekin bakarrik egon nai det. Umeak aitzeko gayak ez dira. Gero, berari ere itz erdi bat belarrira esango diot...

FELIXA: Zer ote du gizon onek. Asmatu bayetz... ia Margerite! sukaldera joan ari kafiantzako ura irakiten ote dagon. Askar, aguro! aita zai daukan-da...

MARGERITE: Banua ama... bañan sugañean jartzea besterik ez dezu egin. Oraindiokan, ene! *(Aitari)* Dagoaneko oiera aita? orren goiz...

TXINPARTA: Abil neska! Gurasoan esanak beti begi itxutan bete bear ditun... ri raul!... Pixkan bat sua astindu zan eta egon antxe zai irakin erazi arteraño.

MARGERITE: Aita, ez al degu gabero bezela ogeitamaiketan iblli bear?

TXINPARTA: Ez, ez. Ez ogeita-amaiketan eta ez ogeita-amaikaterdin, biazik astoan belarriak baño zuzenago. Aurrerantzian Txinpartaren etxea eta kuartel bat berdin. Erne nere deadarrai... Margerite, Aurrera, atzera, eskubira, eskerrera! Eup!

FELIXA: Ua alaba, aita asarretu gabe!

MARGERITE: *(Doalarik)* Zer du gaur nere aitak? Soldadu zar bat uste al du naizela, ala?... Alaba bakarra ez beintzat.

II. IRUDIA

Txinparta eta Felixa.

TXINPARTA: Felixa? Zurekin itzegin bearra daukat; Ildakoak ez dira mintzatzen da.

FELIXA: Ikaratzen nazu! Gaxo al zaude? Nun dezu miña?

TXINPARTA: Ixo! ixil! ez da ezer. Guztia esango dizut. Guztia euki deza-zu barruban; lendabizi au eskatzen dizut.

FELIXA: Bañan egitan ez al dezu oñazerik iñon? Arpegia ona ez ezik mardula arkitzen dizut. Obe ba. Jainkoari eskerrak lana ere erruz datorkigu, eta gure Margerite kutunarentzat ekin dayogun gogoz eta pakean. Ai, zer dan asmatu bayetz?

TXINPARTA: Ezetz diot, Felixa.

FELIXA: Sutegiko etxea erosi dezu edo erostekotan zabilta. Gero...

TXINPARTA: Alper alperrik ari zera; tira aitu eta ez deadarrik atera. Gauza oso garrantzi aundikoa da; emendik illabetera, geyenaz bi barru *(eskubi-eskerrera beidatuaz)* mendira goaz...

FELIXA: *(Izututa)* E?...

TXINPARTA: *(Bere emaztiari bi besotatik eutsi beya.)* Bai; gu karlatarrak erregeren eta gure lege zarraren alde sutan ipiñiko ditugu baserrak. Beltzak...

FELIXA: *(Sotinka)* Oraindoan ere emango zaituzte iltokira lenago saldu zinduztenak. Euskal-Erri gaxoa!

TXINPARTA: Oraingoan ez Felixa; or, Españi aldean Gobiernua oso aulduta omen dabil; ia esateko, ezertako gauza ez dala; dirua ostutzeko ez bada.

FELIXA: Bai, bai, betikoa...

TXINPARTA: Gero, nik Felixa, berri oyek emazteari bakarrik esaten dizkiot. Naikoa izango omen da, bu gipuzkoarrak adibidez, Idiazabal, Zegama alde ortan bildutzea; bizkaitarrak Durango inguruan; eta Araba ta Nafarroakoak bere tokitan; aurretik noski dana ondo erabakita eta bat-batean iñork uste ez duala altxako gara baster guztitatik; emen agintariak gizonak erne eukiko ditugu; errege etorriko zaigu ta...

FELIXA: Karlos «setimoren» bizarrak ikusi ezkerro beltzak azpira...

TXINPARTA: Felixa! erregengatik ez zenduke ain begirapen gutxiar itzegin bear. Erregek beti paper ona egin du beltzan aurrean eta...

FELIXA: Begi beltzera batzuen aurrean ohea, dakitenak diotenez. *(Asarre)* Bañan zer egin bear dezute gisaxo oriek? Mendira atera, gose, egarriya, otza soñari eman; osasuna galdu, ene Jesus!, azkenez etxea ondatu, emen, txokoan ama alabak negarrez utzita. *(Malkoa dariyola)* Gure Margerite kutunak oraintxe eskontzeko alderdi ona zeukan ba...

TXINPARTA: Ez urtu andre!



FELIXA: Gizonok biotzean maitasunik ez dezute!

TXINPARTA: Guk biotzean eta azkazal muturretan «opiniyua» degu; gañera ez uste ni beste edozein bezela noala. (*Paper bat galtzeta-tik atera beza*) Irakurri dezazu (*Eman beyo*) Bu... ru... za...

FELIXA: Errexa al da emen diona jakiten. Auskalo, oso illun dago.

TXINPARTA: Utzi dezazu utzi; gure sutegira dakarzkiten iriak baño eskola gutxigo dezu emakume!

FELIXA: Eskarrikasko!

TXINPARTA: Anima kenduta.

FELIXA: Zu anima ta guzti; alkarrekin ogei urte oyetan zabitzate ta.

TXINPARTA: Bota eztiya; badio, erregen aginduz, emengo «puertzan» buruzagi egiten nautela, Bu.. ru... za... gi. Au da: iru izar beso bakoitzean.

FELIXA: Danian sei orduban; ia, ia, ortz-garbi. (*Paperari begiratuaz*) Aizu bañan paper au ez da, ez erregerena, ez da egunero arpegiya garbitzen duan kristauarena. Ikusten zer zarpatsukeriya! ez zera sinisteko salla!

TXINPARTA: Felixa! txorakeriz aski da. Ez nuke zurekin asarretu nai. Nik jakiñan gañean jarri zaitut; ez didazula aitatu ez asko ez gutxi emen esandakoa. Egun batez etorriko da; bitartean ixo! ixilik! bestela galduba naiz.

FELIXA: Egitan ai ote da gizon au?

TXINPARTA: Gaurko naikoa mintzatu naiz, geigi ez bada ere. Orain... gure Margerite ez dator. Deitu dezayozu ba. Lagun artera joan baño len, iru itz belarrira esan nai nizkioke ta.

FELIXA: Badakit; ez da apazgaya izan bear igartzeko. Ortaraño joango ziñanik ez nuen uste. Margeriteri Poli organistakin ibiltzea galerazi nai diozu...

TXINPARTA: Zerorrek esan dezu; ori da. Nik gaurdaño ez ikusia bezela egin det; ta gizaseme ori esautzen ez nuen, pxe!!; banekin bere aita gure alderdiko etsaya zala. Mutilla berriz, erdi zalduntxo, apaiñ oyetako bat. Nion nere barruban; or konpon! emakumeak. Margeritek biotza bere gogoz makurtu dezala. Aberean maitasunak egoki ditut makiña bat bider eta ederto! Bizkayan esaten duten bezela. (*Ben, ben*) Emen bezelako zekor, txala, biga, idi, bei eta asto, oi astoak! ez dira ikusten Euskal-Erri guztiyan. Ni naiz «beterinayo» «albaitero» zera, abereen eskontzak tajutzen dituen apaiza. Bañan gizakumeak, gero ta txatxarragoak; gure alabari

laguntzen dion Poli orrek, kana erdi bat gerri ez du. Utsa; zaspiki bat.

FELIXA: Ori da gauzak nastutzea.

TXINPARTA: Ez, anima kenduta.

FELIXA: Batak bestearekin zer ote du ikusteko? Zuk aitatutakoan zure asto eta gañerako «parrokiano» kutunak astutzen gaituzu andre, alaba eta Karlos VIIIn bizar eta aginduak.

TXINPARTA: Ez; oraintxen noa adiskideengana, berri onetzaz adieraztea. Lenago Margeriteri zuk dakizuna agindu bear diot; austeko mutil orrekin; nai ta nai ez. Beraz, alaba bakar ori etsai batentzat; zer lioteke gutarrak? zer erregek?

FELIXA: Zer doña Margerita erregiñak? Eskonsari ona emango lioke. Enetxua!

TXINPARTA: (*Sakar*) Zera... zuk bost dakizu. Birika!

III. IRUDIA

Lengoak eta Margerite

MARGERITE: (*Katillu bat kape eskuetan dakarkila, sartuaz*) Emen dago aita.

TXINPARTA: Bai ni ere emen nago.

MARGERITE: Ikusten zaitut.

TXINPARTA: Orain ba aitu nazazu.

FELIXA: Gizona; aurrena kapia artu dezazu.

TXINPARTA: (*Edanez txurruteka*) Ba Margerite; itz gutxitan; Poli organistari nere izenean eta zure amarenean ere bai esan diozu...

FELIXA: Ez, nerean ez.

TXINPARTA: Nerean bakarrik orduban, naikoa da.

MARGERITE: Zer aita? Berakin itzezin nai dezula...

TXINPARTA: Bai zera; zurekin ibiltzen ez detala iñolaz ere ikusi nai; ez dezala nik begi itxutan ere nere etxe barruan ikusi oi duen bezela.

MARGERITE: (*Negarrez*) Zergatik aita? ez al da ba mutil ona; egundaño berriz ez didazu galerazi berakin ibiltzea eta orain...

TXINPARTA: Orain ez naiz lengokoa. Ire amak bazekin.

FELIXA: (*Berantzat*) Zerorrek bañan geyago gisaxo ori.

TXINPARTA: Mutil ori gure etsaiya den.



MARGERITE: Ez aita.

TXINPARTA: Zer itxaron dezake gure alderdiyak gizontxo orretzaz? bizkar gañera su-izkilluba jasotzeko diña ez da-ta. Utsa; andare bat.

FELIXA: (*Margeriteri*) Ez dezan ontzat artu ari danari. Poli beti izango den iretzat. Aitzen?

TXINPARTA: (*Katilluba ustu ondoren*) Beraz, —biyoi diozutet— ortan gelditzen gara. Gizonak eskontzeko izan dezake gutxinaz sendotasuna. Sakela utsik baidakarki ere, izan sasoya eta kementa (*Ateruntz joanez*) Gera arte... Beriala bainator; Atoz giltzaz atea ixtea ni atera ondoren

FELIXA: Bai al zuaz gizon?

TXINPARTA: Ni kalean naizen bitartean ez dedilla sartu emen iñor; zu uzten zaitut atezai eta alaba zai; ez degu somorrorik bear.

MARGERITE: Pixka batengatik lotuta laga bear niñuen. (*Bijuaz senar-emazteak*)

IV. IRUDIA

Margérite bakarrik.

MARGERITE: Zer du gaur nere aitag?; guztiz asarretuta dago; berez sakar xamarra baizan gaur edozeñek irabasten zion musean... ene Aitaren!!! Polik aitu balitu berangatik esan dituanak. Ez dira ez egiak. Izane nere aitag nai izaten ditu bost erraldeko gizonak; gizonak ere zekorrek bezela neurtzen oituta dago-ta, anima kenduta. Elberdingo Joxe Martin eta Intxaurrendoko Iñaxio talo-esnean arpegiya duten bi baserriar ayek emen dira berantzat aukerakuak: bi artzai; onean, egunen batean etorriko zait esaten eskontza ona dela-ta aytako batekin ustarritu bear nukela; baita zera ere!!! gero zintzarri bat jarri lepotik eta larrera; este-illargi paketsua. Ortarako ibilli naute prantzesa, pianua eta beste gauzak ikasi asten... obelu... (*Asarre*) ni ba Polikin eskonduko naiz beste iñorekin ez. Debekatzen baidit (*Ager bedi Poli bere uarkabea*) Tolosako «Santa Clara»n lekaime sartuko naiz...

V. IRUDIA

Margérite eta Poli

POLI: Ori ere egingo zenuke Margérite? Zer gertatzen zayo nere maiteari?

MARGERITE: (*Karraxi eginaz*) e!! Poli zoaz askar!!! nola zaude emen?

POLI: Zuk galdetzen didazu!! pozik aidean zure aurrean...

MARGERITE: Bai bañon nere aita etorri bitartean bakarrik izango da; ez dakizu zein asarre arkitzen dan zugatik...

POLI: Bai, badakit; aitu dituk marruak. Etxe onetan sartzen nintzalarik jetxi dira biyak, senar emazteak, eta eskerrak zure amak ni ikusirikan eta ateari bultzaso bat emanez euki naula estalirik bestela...

MARGERITE: Ez zera ikaratu?

POLI: Baita, ia, ia egin nuen kukurruku.

MARGERITE: Galduba ziñan Poli; emango zizun jipoi on bat.

POLI: Zuregatik pozik ixuriko nuke odola tantoka tantoka...

MARGERITE: Ez, ez, ez nuke nai; gorde zadazu ondo baezpa ez dakit ixuri bearko ez dezun nere aitag emen barruan arrapatzen baizaitu.

POLI: Zure ama ona etorriko zait laguntzera!! nigana, Jainkoak urte askotan gorde beza nere amagiarreba-gaya, oleskariyak dionez: Etxeko-andre zabala oiñ oneko alaba.

Andre Felix!!! nik bai, sortuko det ordaintzan zure eriotzaren orduako, bemol guztiaz mesa bat alik eta goitarrena.

MARGERITE: Beldur naiz Poli. Nere aitag ez du nai zu nerekin ibiltzea.

POLI: Zer ba? eskongai euki bear al zaitu bizi osoan. Nesga zarra, erri ontako izarra?

MARGERITE: Ez baño esaten du oraingo gasteak ustel, beldur, ezerezak dirala eta zu zerala andare bat.

POLI: Zer geigo zer?

MARGERITE: Bere senidea izateko gain-gañetik bi gauza oyek euki bear omen dira: «sasoya eta kementa».



- POLI:** Orduban, «Erkules» berriro jayoko balitz zure senarra izango litzake!!!
- MARGERITE:** Poli? badakizu zurekin bakarrik alkartuko naizela Jainkoak lagun.
- POLI:** Egitan? Margerite? Ala bada zure maitasunak emango dit neri sasoya eta kemena.
- MARGERITE:** Bai, bai, Poli joan zaitez ordea; ez nuke nere aitagaz billaketa txar egin zezazun.
- POLI:** Banua ala bada zure borondatea; zure naimena nere buruan eta nere biotzean egin bedi (*Joanez*) Lenago utsi didazu estutzen elur berogarrikoko esku... esku zerutar ori... (*Estutu beza-yo*)

VI. IRUDIA

Lenguak eta Txinparta.

- TXINPARTA:** (*Sarturik*) (*Asarre biziya*) Auxe bakarrik ikusteko neukan!!! Zer galdu zaizu emen?! Nundik sartu zera?!! Zer da lotsagabekeri au, alkarri eskuak eman-da? Ez al dezu mingaïnik?
- POLI:** (*Apal-apal*) Badakizu, aspaldian eskontzekotan gabilta...
- TXINPARTA:** Eskondu e? zeñen baimenakik? Oraindiokan iñudea obe dezu artu emaztea baño. (*Bere alabarengana zuzenduaz*) Nun den ama?...
- MARGERITE:** Goyan!
- TXINPARTA:** Ori da; alaba bakarra utsita eta bera goyan ez dakit zer eginen! Alperrik da norberak aginduak itz onetan esatea. Felixaxa?!!...

VII. IRUDIA

Lenguak eta Felixaxa.

- FELIXA:** (*Sartuaz*) Aguro etxeratu zera!
- TXINPARTA:** Zenbaitek uste baño lenago. Baidijua bat etxetik puska bate-rako, eta zein arkituko ostean-da «pailaso» ori nere alaban

eskuari utsita. Zer esaten dezu onetzaz? au al da xuxida-dea!! Zaindari ona dauka nere alabak!

- FELIXA:** Ez nekien ezer; nik igarri gabe sartu da onera.
- TXINPARTA:** Gezurra merke!! Karabinero ona zu ere «Kontrabandua» sartzen usteko!!
- POLI:** Zerorrek ere sartzen utsi nazu bein baño geigotan itz erdi bat esan gabe.
- TXINPARTA:** Esan det lengua ez naizela. Orain nere alaba ez dago edozeñentzat.
- POLI:** Zer ba?; ez da beterinayuan ordez errege bera baziña ere!
- TXINPARTA:** (*Besotik elduta*) Alde emendik ume lotsagabea!!!
- MARGERITE:** Aita!!
- FELIXA:** Joxe Leon!!!
- POLI:** Banua; barkatu nai ezda gauza txarren bat esan badizut. Ez det uste gizon bat uskeri batengatik etxetik jaurtiko dezula zapi zar baten antzera.
- TXINPARTA:** Olakorik iñork entzun ez dit. Nik diotena emen eta eguzkiyan aurrean da, nere zuyetzaz gizon bat bear detala, gizon bat!
- POLI:** Ez dago gaizki esana. Gizon bat; zu ala zera noski?
- TXINPARTA:** Ez, ara bestea, armiarma zarea naiz.
- POLI:** Nik ere ba gizontzat daukat nere burua. Zu zuazen lekura iritxiko naiz eta zuk dagizuna egin dezaket.
- TXINPARTA:** Berriketa ugari; ez badakizu ere ni nere egiña naiz. Lau aldiz gudatean sartu nintzan, sutan. Lizarragarekin eta irutan arramaska ederra izan nuen; ez txantxetako; uste det zer edo zer badala.
- FELIXA:** Bai gizon bai; aitu izan det gizon onek beldurra zer zan ez zekiel. Eriotza bera era ez zayo batere ajola!!!
- POLI:** Besterena ez noski! (*Beretzat*)
- MARGERITE:** Aitari Purgatoriko animak bakarrik ematen diote beldurra; arratzez agertzen diranean.
- TXINPARTA:** Eukin zan geldi mingaïñ ori neska!
- MARGERITE:** Aita, diotenez Belauntzako errotariya lengo egunean il zana, egunero agertzen omen da arratzez; oi ikara!!!
- POLI:** Bai erañegun gaberdian azkeneko azaldu omen zan begitatik, txinpartak zeriote eta illeak garretan.
- MARGERITE eta FELIXA:** (*Batean*) Jesus!!!



POLI: Eta gabero ageriko dala diote bere emaztea berakin eraman arte-raño.

TXINPARTA: Uxatuko nuke beriala oyetik jeiki gabe bere emastearen orde z banego izatza eta guzti ja! ja! ja!

POLI: Apika; bañan ikusi nai ziñuske an bakarrik, errotako zubian, zai, inpernuko etsai guztiakin datorrenean.

TXINPARTA: Nere etxetik irteteko aspaldian aindu dizut; lenbailen ez bazuaz erakusiko dizut bidea.

POLI: Bai joango naiz; esan bear dizut ordea errexagoa iruditzen zaidala Lizarragaren edo beste edozeñen mendean sutan sartzea —esateko heartuta— gaur gaberdian Belauntzako zubian egotea baño.

TXINPARTA: Orrekin esan naiko dezu beldur naizela.

POLI: Ez det ori esan baño ikusiko genuke.

TXINPARTA: Zerorri bidaliko zaitugu ur bedeinkatuaz igurtzita.

POLI: Zu bezin aguro joango nintzake; eta orduban iritxi ohea izango zenuke nitzaz ikusiaz, zu joan ezin zeran lekura ni joan neikela.

TXINPARTA: Begira!! (*Besotik elduta astinduaz ateruntz eramanaz*) Lagun batekin jolasean ari zerala ba al deritzazu Petrala!! (*Jo beza masallean*)

FELIXA: Joxe Leon ardea!!! (*Pakea egitera sartzea*)

MARGERITE: Aita!!!

TXINPARTA: Ia nun diran zure indarrak! Nun ote du gizon onek kementa; poxpolo kajan astuta!

MARGERITE: Utsi diozu aita! (*Negarrez*)

POLI: Ez negarrik egin Margerite!

TXINPARTA: (*Bere emeztearengana zuzenduz*) Ekarki dezayozute mandire aundi bana malkoak legortzeko!

POLI: Arrokeri oyek ikusi nai nitzuke gaur gaberdian errotako zubian.

FELIXA: Ildakoak utsi ditzagun pakean.

TXINPARTA: Bai, garai ortan oyea giro ohea izango da.

POLI: Zu ez zera ara joateko diña!

FELIXA: Jesus! naiko «desapiyo» alkarri bota diozute, aski da!

TXINPARTA: Parregarriz artu bear ume onek esaten dizkidan txorakeriyak! Ez ez, aizu aizu!; ni joango naiz esandako lekura bañan legea dan lez zeorrek egon bear dezu an begira nere aldamenen. Tira Gizona!

POLI: Bai, joango nazu eta zeñek daki nere bearra ez ote dezun izango.

TXINPARTA: Zer? poxpolo kaja ta guzti al zuaz?

POLI: Eta krixallu aundi batez ikusteko nola igesi joango zeran erbi ikarati bat bezela. Biyar etoriko naiz galdezka zer gau-giro ona igaro dezun.

TXINPARTA: Esan det ez zaitudala ikusi nai berriz, ametsetan ere! (*Amorruaz*) Joan zaite beriala bestela damutuko zaizu!

POLI: (*Dijoala*) Bañan gero arte e? bederatziaik dira.

TXINPARTA: Iñork ez agintzea oituta nago, egia da; alare, gero arte! Belauntzako zubian izango naiz gaberdian Nikasio erotariyan anima agertzen ote dan; gañera, oso gertu alkarrekin txiki erdi bat botatzeko lasa lasa bear bada (*Dijua Poli eta atzetik Margerite*)

VIII. IRUDIA

Txinparta eta Felixa.

FELIXA: Gaur arratzerdian Belauntzara?!!! Zertara?; ez dakit animaren astarrenik arkituko dezuten bañon odola ez bazaizute izosten dagon otzaz!

TXINPARTA: Obe! Obe! (*Alde batetik bestera ibilli ondoren apal, apal*) Zer derizkiozu Felixa? Guri, kristauai ez digute ezer egingo anima oyek. Aitaren batez uxatuko ditut guztiak.

FELIXA: Zer? aitaren bat (*Beretzat*) Asi da gizon au Jainkoaz goratzen eta baita soñean ikara ezurretaraño sartzen asi zayo. Bere erronkangatik ondo irabaziya dauka. (*Berari*) Aitaren bat? ez obe zaizu sutegiko mallu aundia eramatea.

TXINPARTA: Pxe!!! ikusiko det... Aizu Felixa? Mutil ori, emen izan dana ez da erriko organista?

FELIXA: (*Arrituta*) Ez al zekizuen egundaño? besterik?...

TXINPARTA: Bai, zer edo zer; Musika, Eresia gauza ederra da; nik Iparragirren kantak baidakixkit.

FELIXA: Emen ez degu entzuten erritan kanta besterik!

TXINPARTA: (*Bere modu*) Gizon ona Iparragirre; biotz onekoa; bera euskaldun kantaren gurasoa. Gernikako Arbola! ura da gauza ura, ederra! esautzen al dezu?

FELIXA: Makiña bat izango dira Gernikan.



TXINPARTA: Ez, ez, bat bakarra; Euskaldunena eta Iparragirrerena. Len-dabizi entzun nionean berari Tolosako kalean alaitasunez illeak zutik ipiñi zizkidan!

FELIXA: Gaurko gaberdiak zori ortan arkitu zaidazula.

TXINPARTA: Ez daukat astuba!

FELIXA: Ez dakit ba; ez ote zaizu damutu esandakoa?

TXINPARTA: (*Sakar*) Ez, ez; eta zer! gizonak ez dute beñere bere itza ukatzen; ni joango naiz ara, alde guztietara joaten naizen bezela; kopeta ondo jasota. Eta ez didazula orretzaz geyago itzik aiatatu. Biyar goizean gertatukoaren berri emango dizut. Orain oiera noa...

FELIXA: (*Berantzat*) Aragiya xamurtzen ari zayo. (*Berari*) Joan zaitea bai 9ak besterik ez dira; lo puska bat egiteko beta badezu. Gabon! ni ere ala noa zer egin batzuek bukatu ondoren (*Dijoala*) Ez daukazu begiak itxitzerik!

TXINPARTA: (*Joanez ateruntz lasterka*) Felixe?... Joan da!; ez du ajola aundirik bere senarragandik! Birika! Itz erdi bat naikoa nuen gelditzeko. Ez nau maita! (*Joanez beste ate oartetik*) Orain bai joan bearra daukatela! Birika!... (*Mai gañean egongo dan argiya itzaldu beza*)

IX. IRUDIA

Margerite eta barrendik Poli; gero Txinparta.

MARGERITE: (*Ixilik sartuta leyoa idikiyaz*) Agur! agur!; ondo eztaita joan!... ori otza Poli!... eta jakin au neregatik dagizula!

POLI: (*Barrendik*) Zugatik ez Margeritatxo!; zuk ez dezu ain biotz gogorra baizikan axukre koskor bat...

MARGERITE: (*Pixka batean kiñuk egin ondoren*) Ez olako gauzarik neri esan bestela...

TXINPARTA: (*Azalduez lengoko atetik*) —Birika! Txistuz ez baditut pegatzen begiak ez det surrunka baten loa egingo. Zer det nik barruban?! (*Ikusiaz bere alaba*) E! Nor dabil or?... nere alaba e?—

MARGERITE: Poli, eta animak agertzen badira oi ikara! berialaxe aitaren bat egin zazu.

TXINPARTA: —Aitaren bat? nik baezpada errosariyuak eta etxeko urbedeinkatu ontzi guztiak nerekin eramango ditut!—

POLI: Ez dira etorriko; obeki daudez degon otzaz, bero, bero, «Purgatoriyoko» labean.

MARGERITE: Nik Izazkungo Ama Birginari otoitz egingo diot. Ez estutu!

POLI: Ez da batere! Egia esateko zure aitak bakar bakarrik beldurtzen nau. Ura masallekoa eman dit alderdi onetan.

TXINPARTA: —Gizona nik adizkidetzeko dauzkaten gogoakin; esango al diot?...—

POLI: Ez da ezer Margerite; pozik nago oroituaz biyar zure esku zuria neretzat izango dala...

TXINPARTA: —Bai, bai biyarkoari itxoin gabe emango dizut nik alabaren eskua eta andrearen atzaparrak nai badituzu! Arratz mada-rikatua!—

MARGERITE: Zoaz Poli! leyoa ixtea noa aita gure berrikeriaz esnatu ez dezagun...

TXINPARTA: —Ori da ni esnatzeko gogoia. Lo al nago ba! banego, ez da zubez eta ez da atso guztiak berrikeriaz ezin bata besteari txanda arrapaturik dabiltzanean ez niñuteke esnatuko ni!!!—

POLI: Ondo esana; zu zera aingeru bat neretzat; biyar arte...

MARGERITE: (*Leyoa itxiaz*) Gabon!

TXINPARTA: (*Sartuaz lengo atetik*) —Gau txar!! Birika!!—

ZAPIA



II. ATALA

IRUDI BAKARRA

(Arratzez da; landan; ageri bedi Txinparta zamar aundi batean bilduta. Eman bitza iru edo lau ibillaldi irudi-tokiyan zalapartaz eta beldurrez. Gero ikara asko, beldur goigo eta kemen pizka batekin abestu bitza diojoazen itz-neurtuak)

TXINPARTA:

Bagera leku onetan
orra! osatu nik itza
ez gezurrez ez txantxetan
benetan jun zan eskeintza.
Bart larri det nik euki
bai, zegokidan kemena
astuta neukan noski
nere buruan izena.
Loak ez ninduen artu
obenak galdu zenidan
zer zitzaidake gertatu?
lotsa; urkoan parra nigan.
Eta oya zirudidan latz;
maindretan baleudeke
itxaso bat bete orratz
ain zorrotz ez lirateke
zulatuko aragiya.
Laster nere oso jabe
zan ene ustelkeriya;
anei esker zuri; obe,
gizonan biotzeko arra
piztu ninduzula askar
bestela, agur! ospe zarra
izen on entzute ta abar...
Ori bakartadea, illun,
goibel-goibel dago gaua

ixil entzuten ez oa iñun
errekaren otsa ez bada.
Ez nazu beldurtzen ibai
ez uste zure oyuaz.
Egongo baziñake zai
apur batean geldituaz
poztuko ziñake ordea
ta errexago ere entzungo
eukiaz belarri ernea
edozein ots inguruko.
Ez dezu nai ez, badakit
neri eman atsegiña;
ua ba! beti igesirik
nere ondotik zikiña!

(Bero, bero)

Dagik marru !' nai aña
begik zeuzkat ikusteko
besotan indarra, saña,
etsai orok sapaltzeko!
Datozela! burrukara
inpernun diran etsaiak
naiz onera, bestela ara!
astinduko zizkat oñak,
eta uran orde z ibai ori
emango dek bai odola;
lenago zuri, gaur gorri,
aitzen? jungo aiz ixilla!

* * *

Bitartean nun ote dago
Poli?

Deus ez zait ageri.

(Eskubi-eskerrera begiratuaz)

Errota barnean balego?
ez da oraindik iritxi,
bestela bear nun ikusi.

(Etsita)

Ementxe nago ni beintzat
berak itza ez badu eutsi
ni ez naiz jaioa umetzat.



(Bat-batean izaturik)

Baletor orratiokan
beriala degu garaya
ez zun esan amabitan?,
ori da gizon lasaya!

(Damututa)

Arrayoa ez dator inor;
bakarrik utsiko naute
lagun gabe bañan gogor
beldur ez nago ez uste...
Nai nuke etorri zedin
gauza aundirik ez da Poli
gizonezkoak ba gau erdin
obe dira bat baño bi.

* * *

Ikusi ote nau norbaitek?;
apika etxetik irteten
jakin bayetz baten-batek?
ezerek ez nau arritzen
esaututa erriko atsuak,
dirala beti sayatu,
egia ez bada gezurrak
aspaldi dute sumatu.
Badira gure auzoan
iru edo lau atso zar,
gauan esna, argiz lotan,
kaska soil sudurebizar
dutenak; mingaña arin
ez dute estarrion miñik
ayek ez badira sorgin
da ez dagolako sorgiñik.
Biyar goizetik asita
«Aimari» kanpayetaño,
kalez-kale jungo dira
etxez-etxe askar asko;
zabalduko dute laster
gau erdian nola naizen
etxetik irten. Eta zer?
ez dezute adierazten?

Ez dezute zergatik ez
usteko erbi kabiyak
ta ollagorak arratzez
altxatzen dirala errexak;
gutxigo banabilela
izarrak ikuste arren,
baizik asmo bat zitala
nabilela ni billatzen;
senarran leyaltasuna,
ta Jainkoari zor zayon
fede, obeitasun ona
ez dala ageri ez, inon.

(Amorruaz)

Zubek bezin zintzo ni naiz,
atzo ta gaur, beti ibilli;
ixil ba!; zaudezte garaiz,
eman gabe lotsa inori.

* * *

Balekiteke noren zai?
emen; noren zai esan det?

(Bizi)

gaua jun dedilla det nai
edo laster bizik ez det!
Arratzak etxetik urrun
ez nau belakoan berriz
arrapatuko. Edonun!
pake ala gudan; zaldiz
ala oñez; ez da eske
badator errege bera,
etxetik aterako ez naute
illunabartik aurrera.

(Otza kenduaz)

Gastetan ez bada giro
ari dunean izotza
zer leike zartu ezkerro?
gutxi baru eriotza!

(Ibiliaz alde batetik bestera)

Banua; bañan nabillen,



joan ez ezin niteke
 aspaldian nago aspertzen
 ala ere ez ba, ez nezake.
 Belarriak entzu bear
 dute amabi kanpai ots
 naiz orduban su eta gar
 suge, muskar, etsai gaiztoz
 bainago inguratuba.
 Illea jarri zait zutik;
 ortzak dar-dar; nagituba
 nago iztar, soñ guztitk.

(Deadarka)

Ator Poli ikustera!
 gizon bat kementsu; beidok!
 naiz izan arren itxura
 Txinparta beldur ez zegok!

* * *

Aitu ez dit; ez da emen;
 apika zubitik aruntz,
 noan araño lenbailen
 bera ez dator-ta onuntz.
 Egonakin gero oñak
 zaizkit ziara izoztu;
 oñak eta muño guztiak,
 nere sudurrai galdetu.

(Joan bedi ertz batera=

*Errota-zubi au da bai
 izane ezin nun esautu!
 oraingo aldean alai
 iñoiz badet pasatu.*

*Beñola, gudatean zan,
 ni eta beste iru lagun
 etorri gera batean;
 ez umore, ez osasun
 ez genuen palta baldin,
 gudaritzak ordu txarrak
 baditu, baita ere, atsegin
 ta onak; ura algarak!
 Dan! dan! jo degu atea*

*gutxinez amaika aldiz
 utsirik zegoan etxea,
 alperrik jo ta jo berriz,
 barruan ez zan animik.
 Nere lagun batek dio
 orduban, asarreturik:
 errotari! Nikasio!
 irikitzen dek ala ez?
 bazeklet aokela;
 onez ez bada indarrez
 sartuko nauk berialas;
 lau gizon, gose, egarri
 laster dituk amorratzen
 beidok gisaxo ori
 ez euki asi gu itxoiten!
 Au esan bezin aguro
 zabaldu zaigu atea
 eta nun Nikasio zoro
 zoro; gerritik burura
 oi zun bezela larrutsik,
 azpiak galtza zar zarrez,
 ez guztiz estaldurik,
 agertzen dan iri-parrez,
 Jaunak: orixe da presa
 Jastea ez didate utsi
 zaudezte patxaran, lasa,
 beraz nik sartzen galazi?*

* * *

*Jasten diok errotari?
 esan dio lengo berak
 txilborra daukak ageri
 berdin kolko ta bizkarrak
 ta galtzak zuloz josita
 geigo ziruitek galbaya;
 nun-bait baiago estuta
 joan dedilla aske usaya.
 Jastea ori dek itzat;
 ipintzeko larru gorrin
 ez dek asko bear, gutzat*



makurtzea dana; berdin.

Ja! ja! ja! ja! ura uan!

(Beldurrez lasterka asita)

zeñek egin du parra?;
ni ez nabil ametsetan
norbait dabil a dollorra!
kristaua baiaiz eman zadak
arpegiya; ez gordeta,
ola dagitek andurrak
eriotza, lapurreta!

(Atzeruntz dabillega izututa)

Nikasio izango aiz bai ote?
barkatu gaizki esanak,
ire alde z jai et aste
dizkidat entzuten esanak;
ez baaiz zeruetan sartu
ez dek nere erruz, abill!
pozik!; itzat ez nauk astu
naiz aspaldian baitzan il.

* * *

Joan al da?

ez zan iñor

(Totelka)

artu dezagun arnasa
a!!! gaur emen ez badaor
bayetz gelditu biotza.
O! gau madarikatuba
ez zayak beñere astuko
ire itzal-errañuba
naikoa bai ikaratzeko

(Erdi ametsetan)

ez ni, tximista bera.
Uste aut baizik irekin
ez diat ezet nai; oyer!
Antxe bakarrik nerekin
izango aiz guztiz lagun;
nagolarik oyea lo
zenbat ta geigo aizen illun
ni gero ta geigo lo lo...

* * *

(Begiak zabaldurik)

Bañan

ori amets gozoz!
dabilzkit alper-alperrik
zorigeak arin datoz
ez al det begi, belarrik?
Begi, belarri, sentsuna,
al zer iru anderetxu,
nik bear azkatasuna
eta ayek nekez itxu
geiyo lotu nagusiya.
Bazaudezte asper, itxoin!
zure eta nere biziya
dijoazkigu ba orain.
Azkenengo alegiña
egin dezagun! Ekarri!
zuben indarrak; ariña

(Gar guztiaz)

betorkit Poli!; etorri
nere semetxu! nai badek
aitagiarreba pizkortu.
Nere alaba maite dek
ez aiz nitzaz errukitu?

(Entzun bedi urrundik)

datorren kanpai otsa)

* * *

(Txinparta igesi joanez)

Poli! Poli!; galduba naiz!
bat! bi! iru! lau! bost! kanpai-ots!
A! gau erdiya iritxi aiz!...

.....
zorigeak datoz,.....
.....betoz!!!...

ZAPIA



III. ATALA

(Irudi-tokiya Txinpartaren etxe aurea da; ageri bedi eskerretan atari bat sutege antzera; an eta or, oi diran tresnak; tarteka-tarteka entzungo dira barendik datozen mallu-ots banaka batzuek.)

I. IRUDIA

Andre Joxepa eta Txinparta.

JOXEPA: Jainkoak dizula egun on Joxe Leon.

TXINPARTA: Baita zuri ere Andre Joxepa. Elizako asmotan?

JOXEPA: Bai jauna; nere oñak eman al nauten bitartean ez nuke nai oituran on au gaidu. Jainkoari eskerak oraindiokan ibiltzeko diña naiz; bai, bai, motel, motel, banua...

TXINPARTA: Zoaz ondo; gero arte.

JOXEPA: Ez, ez, esan nai nuen alegia poliki, nekez, bañen iñoren laguntzarik gabe joan neikela. Ia, San Martiñetatik onera —eta biyar zortzi da olentzaro— bein bakarrik uts egin det mesetara joateaz. Ja! ja! ja! ez al da ala?

TXINPARTA: *(Sakar)* Ez dakit, ni ez nazu leyotik begira egoten. *(Berantzat)* Ori dek berriketako gogo.

JOXEPA: Ez al dezu ongi lo egin edo zer?

TXINPARTA: —Zer arrayo ajola ote zayo— Pxe! bai ainbestean.

JOXEPA: Nik ez ba; bart amabiyak jo eta beriala zarata baizan emen inguruan. Norbait laisterka, igesi, baletor bezela. Zu al ziñan?

TXINPARTA: —Birikal!; onen galderak apaizak pazkoazkoa egitea joan-da botatzen dizkidanak baño txatxugoak dituk.— Esna al zeuden?...

JOXEPA: Ez oso lo beintzat; ni gauza ona naiz.

TXINPARTA: —Sorgiña!—

JOXEPA: Ea, sentitu nuen ementxe gelditzen zala eta zalaparta askorekin atea idiki eta itxi ondoren ixil eta paketsu dana gelditu zan. Nere artean nion: ez da gaizkillerik; nagusiya bera noski...

TXINPARTA: Badakizu, illargia betea zala-ta joan nintzan ikusten...

JOXEPA: Illargi betea Joxe Leon!! oraindiokan ilbera doa-ta. Atzo puntupuntun adarretan zegoan...

TXINPARTA: Ori ba, ori; adarrak ikusten.

JOXEPA: Ori gizonak!; ja! ja! ja! eta adarkason bat eman al zizun oin larri laisterka itzultzeko?

TXINPARTA: —Oraintxe zezenak arapatu natxok— *(Gogo txarretik par-egñiez)* Ja! ja! alatsu... Ez bestela otz zegoan, oso otz... —zer esango diot— eta...

JOXEPA: Gero enetxua! tximista egiñian etorri ziñan.

TXINPARTA: Bai or nabil korrika-apustu txiki bat egingo edo ez ote detan egingo. Ni eta beste lagun bat eta sayo bat egin nuen baezpa.

JOXEPA: Zeñekin? zeñekin Joxe Leon?...

TXINPARTA: —puf! zeñekin esango diot? Atso eu Amezketako euliak baño astunagoa dek— zera! nola?... ura!

JOXEPA: Saldabero Azkoitiarrarekin ala?...

TXINPARTA: A! bai.. noski; Azkoitiarrarekin; ezin oroitu nintzan. Banua, banua, or barruan zai dauzkat-ta. Zoaz...

JOXEPA: Bai, bai, baño apustua eta nundik nora?

TXINPARTA: *(Sotin luze bat egin ondoren)* —Azkeneko botara— Utsa; Elizatik Bengoetxeraño jun-etorriya.

JOXEPA: Luzea eta gogorra da apustua; eta noiz ori?

TXINPARTA: —Birikal!; beñere ez!— Andre Joxepa!; mesa galduko dezu ortik aurera bazuaz. —eta nik apustua—

JOXEPA: Izana! bai bai, banua *(Dijoala)* Joxe Leoni azkoitiarra korrikalari bizkorra da gero... Ja! ja! ja! Zu ere gizon gordiña zaude.

TXINPARTA: Gordiña e? —Ik prejituko nauk aguro ez baua— Urte asko urte asko dauzkat arin izateko; eta gañera lan asko egiña naiz...

JOXEPA: *(Eskutatzen dala)* Dagoaneko negarrez. Ez daukazu nere urteak arrapatzerik ja! ja! ja!...

TXINPARTA: —Ez da zure mingañarik ere!—

JOXEPA: Agur agur; gero arte *(Bijua)*

TXINPARTA: Zoaz Jaungoikoarekin!...

II. IRUDIA

Txinparta.

TXINPARTA: Nolabait joan zaiguk andre Joxepa ori! Alare! Zer esan dizkiot ordea korrika apustua dela-ta... Birikal! Moldakaitza



nauk gezurak sumatzen Joxe Leon! toki onean sartu aiz... ez, ez ni txarretik okerrera niak. Bartkoa astu gabe eta ara berriro ni parregarri! Zeñekin eta Saldabero azkoitiarrarekin!... utsa; «Akiles» esango bagenu bezela; ona dek be ukatzeko. Bai zera!; apustu bat jokatzeko arren, bere gerizpearen aurka korri egingo like-ta. Eta andre Joxepa bitarteko! Estuasun batetik irten eta bestean sartu! Andre Joxepa zuzenean berangana ziaik neri aitutakoa adieraztera. Emen nagon bezela! Ta orixe bakarra bear nike; ni erriko albaite-ro jauna! zer galdua bazeukat; arlote orrek ez...

III. IRUDIA

Txinpara eta Martin Joxe

MARTIN JOXE: (*Eskaratzetik*) Nagusi jauna?; astu egin al zaizu?

TXINPARTA: Al ez, ez; bart gaizki asi eta biramonean bizkargañeko eltze au nun dabilkiten jakin ez... Baniak!

MARTIN JOXE: Zer perrak ipiñi bear dizkiot Errekaldere iriei?...

TXINPARTA: Betikoak!; zer ba?...

MARTIN JOXE: Oñazpiak odoletan eta ziaro gaiztotuta dauzkate-ta...

TXINPARTA: Orduban ipiñi dizkiotek nere alabaren jai eguneko oñetakoak. Zera i! Oraindiokan orretan aiz!... Tira!... burni biziiaz igurtzi eder bat eman beyotek eta ez zeukatek aitzekirik...!!!

MARTIN JOXE: —Zapatari leguna!; oñutsik ibiltzea obe liteke.— Ongi ongi; a! Ormaetxeko neska koskorra etorri da esanez, bei bat iru egun oyetan jangurarik gabe daukatela; asto zarra berriz, agiñeko miñaz; eta Joxe Domingo aitona kukurutxo estulaz...

TXINPARTA: Iru; ez al dute senide geyago gaxorik?

MARTIN JOXE: Ez du beintzat besterik aitatu.

TXINPARTA: Ondo zegok; esandakoa egin zadak ba! ni etorri bitartean. Gero arte ba. (*Bijua*)

IV. IRUDIA

Martin Joxe, Lorentxo eta Pernando

PERNANDO: Txinparta ez zegok; etxean ez badago beintzat...

LORENTXO: Onek jakingo dik nora joana dan. (*Martin Joxeri*) Aizak i!?...

MARTIN JOXE: Egun on! jaunak!; baizeratela e?...

LORENTXO: Nagusia noruntz joana da?

PERNANDO: Aspaldian?

MARTIN JOXE: Ez al dezute ikusi?; oraintxe ateratzea egin du ta...

LORENTXO: Bai ote? emendik orduban!

PERNANDO: Zaldiz ala oñez?

MARTIN JOXE: Zeñeri erantzun bear diot lendabizi. Bata besteari txanda ezin arturik zabiltzate-ta.

LORENTXO: (*Pernandori*) I ixilik ago!; galdetzeko ni naikoa nauk.

PERNANDO: Bai baño zaldi gañean joana bada...

LORENTXO: Ez zioz ajolarik!; ola lenago itzuliko dek!

MARTIN JOXE: Dana dala, gaur gutxinaz eguardi arteraño ez.

LORENTXO: E?; eguardi arteraño? Abil! ua billa!; ez dek urruti izango. Esan akiok bere lagun zarra Lorentxo emen daukala zai eta...

PERNANDO: Etorri dedilla lenbailen!

MARTIN JOXE: (*Nagi, nagi*) Ni gero nagusi bat bakarran morroya naiz eta arak aginduba nauka sutegia ez iñola ere usteko.

LORENTXO: Jakiña!; bestela auzoko sagardotegian egun erdia igaroko uke-ta.

MARTIN JOXE: (*Asarretuta*) Zeñek esan du? Egarri ederrakin badakit nik or sutegitik atera gabe egoten.

LORENTXO: I? noiz?

MARTIN JOXE: (*Parrez*) Gaur bezela arditerik gabe nabillenean.

PERNANDO: Ori dek poliki eta gizakeriaz eskupekoa eskatzea; ez da «prantzestarra» balitz ere.

LORENTXO: (*Martin Joxeri eman ez txanpon batzuek*) To! to! ua; etortzeko askar, aguro!

MARTIN JOXE: Bai, bai; etxean norbait gaxo al daukazute?

LORENTXO: Etxean ez; ikulluan! ua!... (*Dijoa Martin Joxe*)



V. IRUDIA

Pernando eta Lorentxo

PERNANDO: Ikusi al dek? ba, ba, ba.; gero ziotek zoroa dala ta; azal ona!

LORENTXO: (*Ben, ben*) Pernando?!

PERNANDO: Zer bear nauk Lorentxo?

LORENTXO: Aurena aurrena beat diat ik ondo entzutea esatea noana.

PERNANDO: Asi nere belarriak asetuko diran arteraño; baago apur bate-rako ez nauk ba belarrimotza baizik euskalduna!

LORENTXO: Beidok; ez pipa jo ire belarri eta belarriondoarekin; ez dek zorakeria; badakik zer aizek jaurti gaitun onuntz...

PERNANDO: Ego aizeak etxe ontako uso zurian billa.

LORENTXO: Baital; ziri berriz; gero iri azken on bat irixtea neri bezin onurakorra izango zaik. Orregatik; Txinparta datorrenean eta urruti ez dala deritzayak kontuz ire mingañaz.

PERNANDO: Ondo gordeta zegok bai; nere kontu, ez dek irixtatuko!

LORENTXO: Ori bai; noizean bein iri-partxo bat edo beste donkitu nai badiok; ondo zegok; bizkarrondoan zaplasteko legun batzuek, adizkidetasuna erakusten ditek eta ez zaizkiok gaizki etorriko; eta orobat ortzak estutuaz eta begiak zerurontz igota, Errege aitatztea, errege Karlos zaspigarrena Fueroak, lege zarrak eta Euskal-Erriya...

PERNANDO: Ori dek «komeriy».

LORENTXO: Ez ziguk kalterik egingo baizik lagundu izugarri gure asmo-etan.

PERNANDO: Ori dek etorriya ori!; egitazko sasi-letradua! ederki mintzatu aiz!

LORENTXO: Gero ere ba, itzegiten neri utsi. I itzetan zurra izan ail oso zurra!

PERNANDO: Zurra? bai, bai ortatik kondarrarik ere utziko ez diat baez-pa. Erriyan dagon guztia aituko diat beintzat. Noskil; ondorengoan i neretzat nere lan au ordaintzen esku zabal zabala izan aizen.

LORENTXO: Pernando; gutxinez iru ontzako.

PERNANDO: Txokolatetan?...

LORENTXO: Urre zarretan!

PERNANDO: Urrea izan ezker, berria ere berdin zayak.

LORENTXO: I beti berrizale.

PERNANDO: Ez, «progesista».

LORENTXO: Ai beltza!...

PERNANDO: Beste «karkapunta».

LORENTXO: Lanean asi bañan len ez diagu alkar asarretu bear, bestela, kaxo motel! nere semearen eskontza ire urrea eta danon ametz gozoak. Ik azalez ba, gañetik bakarra bada ere gure-tarra, karlatar amorratua bezela ageri bear aiz!

PERNANDO: Ondo zegok; ez ba neri azala urratu bestela...

LORENTXO: Ba, jarraituaz lengoari, nik nere semea Txinpartaren alaba-ekin eskondu bear diat; ik badakik organista txepel ori aurreratu egin zaidala eta nik bultzaso bat emanaz atzeratu eraziko diat, galeraziaz eskontza ori; nola? entzun!...

PERNANDO: Apaizari baño gogo geigoz.

LORENTXO: Atzo arratzaldean, Joxe Leon Txinpartari idazki bat, karta bat bidali nitxuan, gezurrezkoa, gure alderdiko agintarien, aundikien batek bidaliko baliok bezela, esanas, nola erregek eta jaun altsu guztiok ikusiaz gauzak oso ondo guretzat zeudela, erabaki zutela laster mendira ateratzea.

PERNANDO: Makulukin atera gero, azkenengo jipoia ez zaizute oraindion guztiz sendatu-ta.

LORENTXO: (*Asarre*) Utsi didak bukatzen! Ba, bein ortan jarri ezker ez zuen ezer kostatzen ta erregeren aginduz erriko mutillaren buruzagi izendatu diat; eta au zergatik uste dek?

PERNANDO: ???

LORENTXO: Ba mutillaren buruzagi izanda ezin dik iñola ere utsi bere alaba etsai bategaz eskondu dedin. Poli organista ez dek gutarra, ez da nai ere! eta ara or nola nere semea Txinpartaren alabagaz eskontzeko zorian arkituko dan. Jainkoak nai badu. Zer deritzak?

PERNANDO: Karlatar guztiok maltzur talde bat zeratela. Karlos zaspigarrenak bide ori bera zemakik Española erregea al izateko. Ez au errege, ez ire semea senar.

LORENTXO: Motel! ago ixilik!



VI. IRUDIA

Lengoak eta Txinparta.

- TXINPARTA:** *(Bat-batean sartuz)* Kaxo!; zer bear nauk olako arduraz?
- LORENTXO:** *(Atzekoaldera egiñaz)* A! poztutzen nauk etorri aizean!
- PERNANDO:** Egun on jauna!
- LORENTXO:** *(Eramanaz berekin txoko batera txamarratik utsita)* I? jakin al dek?
- TXINPARTA:** Zer ola?
- LORENTXO:** Azkenengo albisteak diotenez, laster, beriala aguro, mendira ateratzea goazela, eta i erriko indarraren buruzagi...
- TXINPARTA:** *(Eskuaz aua ixten diola)* Pxe!... ixo!... *(Fernandori beidatuaz)* Zeñen aurrean gaudezen ez al dek begirutzen! Beltz bat!
- LORENTXO:** Bai zera!; guretako dek orain.
- TXINPARTA:** Birika! Noiztik?, nork biurtuta?; inpernuko etsaiak baño gaiztogo dek-ta.
- LORENTXO:** Nera semeak motel; eta ez bera bakarrik, beste lau edo bost erdi arrapatuak zeuzkak.
- TXINPARTA:** Egitan?
- LORENTXO:** Emen nagon bezela; erriko gasteditik ez dek bat bakarra ere geldituko ire mendean egongo ez danik. Ondo ziak, ederki!; *(Pernandori deituaz)* onek esango dik bestela. I Pernando?...
- PERNANDO:** Bejoindezula! buruzagi kementsu ori. *(Agurtuaz gudari antzera)*. Orain arte bide okerretatik ibilli banaiz ere, emendik aurrera —Lorentxoren seme bizkorrari eskerrak— nauka-zu zure mende. Gora Karlos zaspigarrena!!
- TXINPARTA:** Ixo! ixo! ez sutu; gerok jaso bear degu errege gure besoan indarraz. *(Lorentxori)* Bikaña dek gizona!
- LORENTXO:** Izugarri! Ba ez zegok astia galtzerik, ondo egin bear badira gauzak. Azkeneko deia etoriko danerako neurri guztiak artuta egon bear ditek; gizonak erne!
- TXINPARTA:** Ori! ori!
- LORENTXO:** Dana gertu,... eta tatar!!! Joko dutenean...
- PERNANDO:** *(Gudari antzera ibilliaz)* Bat,... bi, bat,... bi, iru,... lau, bat... bi...

- TXINPARTA:** *(Deadarka)* Eskerrera!... eup!... geldi!! *(Besotik etsi beyo)* Geldi geldi! ori dek gizon sutsua!... Eta zer neurri deritzak lenda-bizi artzeko!...
- LORENTXO:** Nere iritxi motzean lendabizi, gain-gañetik, auxe: mutillak, gure gastedia pozik euki.
- TXINPARTA:** Baita, ondo esana; biyar ba Batzokian zagiardo bat eta gasta ta ogia ugari izango ditek. Jan eta edan dezatela geroko barauan ordañez; oso zuzena dek.
- LORENTXO:** Kaltegarria zuzena baño.
- TXINPARTA:** Zergatik?
- LORENTXO:** Ez dakik ba gastan usayean eta ardoa merke edate arren sal-kindarien bat gure artean sartu ditekela; gañera, gero bear-ko degun dirua botatzea ez dek egokia; azkenez, gasta ta arduaz gasteai sabela beteko zayotek biotza ordea utsik geldituko dek...
- TXINPARTA:** Zer gura dek bai?; titiya ta musu bana bakoitzari ematea!...
- LORENTXO:** Orrenbesteraño ez; ik ezer gutxi egin bearra daukak; ire alabak asko. Joxe Leon! zer berriketa ez liteke egingo mutillak, ire gizonak, ikusirik bere buruzagiaren alaba ume etsai ta ustel batekin, ajolagabea! eskontzetako dabilleta?...
- PERNANDO:** Esango luteke; zer buruzagi da ori bere alabari agintzen ez diona edo onek obeitzen ez duna?; guri ere ez ba. Eta *(Bira erdi bat eskerretara eman beza)* bira bat eskerretara eman eta ospa!... mutillik gabe!
- TXINPARTA:** Jaunak! nere baimenik gabe dabil; ez da eskonduko ez.
- LORENTXO:** Gizon bat aiz!
- PERNANDO:** Ez nola naikoa! *(Bizkargañean zaplasteko bat eman beyo)*
- LORENTXO:** Buruzagiaren alaba zure menpian egongo dan gizaseme kementsu ta yayonantzat; ori da oitura eta antziñako kondairak ori bera egin zutela, dio buruzagi ospetsu guztiak. Nola Napoleonek, bai Zumalakarregik...
- PERNANDO:** «Santa Cruzek»...
- LORENTXO:** Motel Santa Kruzek alabarik ez zian, apaiza uan-da.
- PERNANDO:** Besterenak agintzen zizkian ordea.
- TXINPARTA:** Ez beldur izan alde orretatik; nere alaba zoratu xamarra zebillek bere organista orrekin bañan orain beintzat ez dek eskonduko. Gero Lorentxo, ikusiko diagu zer datorren...
- LORENTXO:** Ekaiak bosteko ori! *(Eskua luzatuaz)*
- TXINPARTA:** Oso gogoz.



PERNANDO: Noski! biyok senideak izateko jayo zerate.

LORENTXO: (*Orduari beidatuaz*) berandu dek! au dana oso ondo zegok, bañan guk beste neurrik artu bearra zeukagu, beraz...

TXINPARTA: Nik Ormaetxetik deia izan diat; nere zai izango dituk onuskerero.

LORENTXO: Lagunduko diagu zubiraño. Goazen ara aldera.

PERNANDO: Goazen ba! (*Bijuaz*)

VII. IRUDIA

Poli bakarrik.

POLI: Ori egunak!; au ez dek bizitzea!; atzoko gaua! neretzat txarra zegon otzaz —eta zergatik ez aitortu— neukan beldurraz! Bañan nere aitagiarrak zer zan ura! Kiskurtuta negoan estalpetik, lendabizi itz banaka batzuek aitu nituen; bera zan noski! Geroxego, deadarrak, oyuk; andik pizka batea itozteko edo iltzeko zorian norbait dagonean bezela, alaka deitzen zidaten. Poli! Poli! nere izena; alako batean berriz nun igartzen detan, norbait laisterka igesi, tximista egiñian zijoala! Antziak eta baziak!

Gauza guzti oyekin ez nintzan oroitu ez Garbitokiko animarik ez etsaik zanik; eta gaua ez det esango ondo bañan ainbestean igaro nian. Gaur berriz goiz asko ez banaiz ba jeiki onera etortzeko... Ez diat geyegi arrotu bear nere burua! ta itzik ere ez diat aitatu zarraren aurean asarretu ez dedin. Berak bai zera! ez natxok ez atzo lez etxetik jaurtiko...

Nere andregayari deitzea niak... ez, ez. Lenago Martin Joxeri galde-tu bear zuat nagusiya etxean ote dan. Eup! Martin Joxe!...

MARTIN JOXE: (*Barrendik*) Nor da?

POLI: Gotik ari aiz e? Nagusiya ateria al da?...

MARTIN JOXE: Ez etxean, ez emen, ez da beintzat.

POLI: Ori jakin hai nian ba; eskarrikasko ta bero arte!... deitzea niak (*Txistu-otsa beatzaz ateriaz*) fii.. fii... aitu dik... baizetorrek.

VIII. IRUDIA

Poli ta andre Felixia.

FELIXA: (*Sarturik*) Egun on Poli!

POLI: (*Arritu kiñu bat egiñaz*) Jainkoak dizula zuri ere etxeoandre.

FELIXA: (*Ben, ben*) Noiz etorriko ote ziñan zai negoan.

POLI: Ni ba goizetxo zala ta zubez oraindiokan etxeko zeregiñetan egongo ziñatela-ta ez zait ondo iruditu lenago etortzea bestela...

FELIXA: Nere senarrari egin dioten jokubak ez du izenik! Erriko idazkari, sasi-letradu ajolakabe orrek. Orrek! petrala!; ez du izenik!

POLI: Ez dakit ezer!; adieraziko bazenidazuke?...

FELIXA: Lorentxo «sekretayo» zital orrek ez du bebi onez ikusten nere alabagaz eskontzekotan zabiltzan...

POLI: Betaurrekoak jartzea ditu! A! Margerite bere semearentzat nai al lukee... Orra nun ateratzen zaidan beste galazpen bat!...

FELIXA: Ez enetxua!; gure Margerite ortarakoxe dauxagu!; koipegarri orrentzat! Ni bizi naitzen bitartean zuretzat bakarria izango da.

POLI: Eskarrikasko andre Felixia ta Jaunak tarte luzeko biziya eman bedizu!...

FELIXA: Zer ote da, lotsarik ez izatea; atzo karta bat bidali zion —ez noski bere izenez, nik badakit ordea zer usten zun?— idazki bat esanez alegia karlatarrak beriala mendira atera bear zutela —badakizu, gezurra ta aitzekia ugari— ta nik ez dakit zenbat gauza geyago, beintzat agintzen zion, ola agindu bere alabari gebendu zizeyola zurekin eskontzen...

POLI: Nik dakidala beñepein iñori kalterik egin ez diot eta ara nundik etsayak alde guztitatik ateratzen zaizkidan.

FELIXA: Ez batere kezkarik izan Poli; ikusiko dezu erle ipur-zuri guztiak nola uxatuko ditudan...

POLI: Zer ote da lore eder, gezati bat etxe barruan eukitzea...

FELIXA: Makiña bat lan eman dio bere amari ezin zaindurik, eta oraindiokan...

POLI: Nik uste nuen ba bart igaro detan otz, eta naigabeaz, lore eder ori ondo irabaziya neukala...



FELIXA: Poli! ez deyzula aitatu bartko gertaerik; oroituzteak bakarrik min ematen dit Jesus! geroxego ere beta izango degu!... gogo eta biotz guztiz bemozut nere alaba zure aldamenean beñere igartuko ez dala badakidalako.

POLI: Ez dakit zuri nola bear añako eskerrak eskeñi; zure zabaltsunagatik betiko zorretan gelditu aritzen nazu. Gure zorion estiatik zati aundi bat egunero jan dezazun aleginduko naiz...

FELIXA: Banekien seme on bat izango zifñala...

POLI: Nik berriz nere aurrentzat amona oberik ez nezake aukeratu...

IX. IRUDIA

Lengak eta Margerite.

MARGERITE: Amatxo!... (*Poliri beidatuaz arrituta*) oi! Poli...

FELIXA: Emakumea ez zaizan izutu; emen zegok Poli oso osorik.

MARGERITE: Ikusten det bai; zer moduzko gaua igaro dezute?

POLI: Nik arras ederki Margerite!; zure aitari galdetu bear...

MARGERITE: Animak ez ziran ageriko?; Oi ikara!

POLI: Ez, ez.

FELIXA: Begira!; ez dezazutela ortzaz geiago itzegin eta gutxigo aita datorenean ondorengo onarik ekarriko ez du-ta; joandakoa astu, naikoa da.

MARGERITE: Ez ba, ez ama.

POLI: (*Margeriteri*) Jakin dezazu bakarrik, zure amak esan dit-ta, emendikan aurrera aldapa-bera bide eroso batetik apaizaren «beinkazioa» artzea goazela.

FELIXA: Nik ez det orrenbeste esan.

POLI: Nik asmatu egin det ordea.

FELIXA: Biok ere asmatzalle onak zaudezte, zaudezten ez!; ez zifñaten ba atzo goizean asi, ta azkenean beriarekin atera!...

POLI: Zer nai dezu ba; ikusia zegoen alkarrentzat jaiok giñala.

FELIXA: Oso urrutira ikusi zenduen.

POLI: X-en izpia!; zure babesean Andre Felixa ta zure izpi onaren bitartez illuntasun gorrinean ere azken on au argi ta alai nekusen...

FELIXA: (*Norbait datorrela kontu-artuaz*) Zer biko dator or?

MARGERITE: Ara!; andre Joxepa dator beste gizon batekin.

X. IRUDIA

Lengak, andre Joxepa ta Azkoitiarra.

JOXEPA: Emen dakarkit beste «korrikalariya». Ja! ja! ja! ta ukatu egiten du nik diana ez baneki bezela. (*Azkoitiarrari*) Gezurra gero? 7-n aginduan galaziya dago...

AZKOITIARRA: Bañan emakumea, nik ezertxore ez dakidala, bestela zergatik ez jokatuko nioke «bentaja» puzka bat eman-da gañera.. Tira! nun da bera?; galde diogun!

FELIXA: Zer zabiltzate?

POLI: Orain ere andre Joxepa mutil zarrakin.

MARGERITE: Ta orixe da apaña andre Joxepa!; neskatil gaste bat diruri pizkor, pizkor.

JOXEPA: Bai, bai, oraindiokan dantzatuko nintzake lagunarik banu...

POLI: Ara or Azkoitiarra!...

AZKOITIARRA: Azkoitiarra bere garayean dantzatu uan bear aña; ta ez zuan makala; orain berriz txorakeri oyek utsita naiago dik, eltze on bat, «kapia» ta txiki erdi bat patar; iru Jainko ta bat bakarra egitazkoa, apaizak esaten duan bezela. Egunero ez dek ori bezelakorik!

POLI: Ori dek «Teologi» polita.

AZKOITIARRA: Oldokiya? Aspaldiar ez diat jan; aspo batek baño aize geigo bota azten zidak. Nai dunantzat!

POLI: (*Parrez*) Atzetik edo aurretik?

AZKOITIARRA: Nun baitetik bai.

FELIXA: (*Azkoitiarrari*) Ez jaramonik egin gaste oyei; zu zirikatzeo gogua daukate-ta.

AZKOITIARRA: Senarra etxean al daukazu?

FELIXA: Ez, aspaldi xamar atera zan. Zer ba?

AZKOITIARRA: Ez, dakigu ba, andre Joxepa ori etorri zait esaten zure senarrakin korrika-apustu bat egitekotan nabillela. Ez dago gaizki, bañan arritu nau nik aurretik ezer ez jakiteak eta emen nator egia zer ote dan edo...

FELIXA: Nere senarrakin! ez da egia izango; andre Joxeparen gauzak.



JOXEPA: Bai e?; senarrak sarritan ez zaituztete gaizki «ingañatzen»; ortarako eskondu!; Jainkoari eskerrak obeto gelditu giñan gelditu giñan bezela.

FELIXA: Neri ixilik euki ote dit ba?

JOXEPA: Ixilik?, nik ala uste. Sayoak, iñarkunak, gauzez egiten ditu ta ez oso goiz alajaña! Bart, amabiyak inguruan zetorren laisterka, neronek sentitu nuen, eta gaur goizean berak diana adierazi dit.

AZKOITIARRA: Arrenepola! nere diruak errex irabazi nai ditu; ez ba, gaurtik neronek ere ari bear det ibiltzen.

FELIXA: Bañan... Poli? aitzen al dezu diotena? ez det siñisten!

POLI: Ez dezazula siñistu ez, emen beste eskutapen bat dago; (*Berakin ertz batera joanez*) Nunbait andre Joxepak sentitu edo ikusi du zetorrenean errotako ibillalditik eta emakume benetako bat bezela jeiki bezin aguro etorriko zitzaion galdezka zer zan, eta nundik, nola, noraño eta berak aitortu ez arren egia lotsagarria edo zalla irudituta, gezurra bota dio. Gero andre Joxepak diana nastu du.

FELIXA: Bai bartarratzeko jasokunak ez digu ondorengo onik ekarriko! (*Urbilduaz*)

AZKOITIARRA: Beldur al zera etxea ondatuko dizunik? Milla bat erreel gora bera!... Zubek aberatsak zerate! Ni berriz aspaldi ibilli gabea ez naiz lengoa.

FELIXA: Zu beti apustu zale. Ez ba nere senarrakin ez dezu jokatu!

AZKOITIARRA: Ezetz? berak nai badu zergatik ez; ara nun datorren...

XI. IRUDIA

Lengoak, Txinparta ta Martin Joxe.

TXINPARTA: Zer dala-ta emen orrenbeste «jende»?

AZKOITIARRA: Danak zure zai!

JOXEPA: Bai, bai, orain ikusiko da eta garbi jarri ere bai, nik egia esan detan edo ez; zure emazteak ez dula siñistu nai! Azkoitiarrarekin apustua dezula.

TXINPARTA: Nik? —Auxe bakarra palta nian— Begira nik ez dizut olakorik esan; zuk gorreriya, edo bestela itzak buruz bera belarrira sartzen zaizkizu (*Asarre*) Ez daukat berriketarako gogorik; utsi nazute pakean! alde emendik!...

FELIXA: Gizona gizona, oso sakarrondo zatoz; lagunak beñere ez dira ola etxetik botatzen.

JOXEPA: Nik ez det ba sumatu; garbi asko esan zidan.

AZKOITIARRA: Banegon ba emakumen batek apustu onen bat egingo ote zidan. Dana dala barkatu txarrera artu badezu. Ikusten det emen apustuako zaletasun gutxi dagola! (*Joanez*) Urren arte!

JOXEPA: Nire banua orduban, baña Jainkoeren aurrean ere ziña egingo nuke nik bere ezpañetatik entzun nuala berri ori...

FELIXA: (*Bere senarrari*) Ondo iruditzen al zaizu bi aizkide etxetik irteten ustea kristauak ez balira bezela; gañera erritarrak eta zintzonetakoak, berak balute bezela zure gaurko zoritxararen errua; gelditu zaitezte ba apur batean eta gure lagunak zerate aldetik jakin eta zabaldu dezazute emen jai dana (*Bitarte ontan Poli ta Martin Joxe ari dira abots ixillian eta talde batean bilduta edesten gertaera, Andre Joxepa, Azkoitiarra ta Margeriteri*)

TXINPARTA: Zeñek adierazi dizu?

FELIXA: Zu etorri bañan len aurreneko aldian dana aitu nioten. «Sekretay» sasi-letradu zital orrek jostallutzaz artu zaitu.

TXINPARTA: (*Minduta*) Badakit bai; Martin Joxek ere aitu zituen berak mintzatutako asmo erretxinak eta bai ere gisaxoa askar etorri nigana. Gauza batek naigabetzen nau ta da Martin Joxe pizka bat leno ez irixteak, nere eskuetan zeuden garayean, emango nion astinduba ez zan izango makala... (*Suturik*) ta oraindiokan...

FELIXA: Ez olakorik; arpegia ez beidatzea izango da zigorarik aundiena.

AZKOITIARRA: (*Danak alkartuaz*) Ta lenbailen alaba Polikin eskontzea; a zer buruka miña egun artan Lorentxok...

JOXEPA: Ta ezteyak aspaldian ikusi eztakoak izango dira ziñez... apain eta alaiak.

TXINPARTA: Gaurganik nere baimena bedezute.

MARGERITE: Aita? ta Andre Joxepa joango da apaiñ-apaiñ eztei-taldean.

POLI: Ta Azkoitiarra bazkaldar izango da.

AZKOITIARRA: Bai, bai; ortarako gertu natxok; arlote ta zarrak ba, paper ohea egin oi degu mayan, gezurrezko IRUGARREN KARLATAR GUDATEAN baño...

ZAPIA

AMAIA

1920ko Irallako 12n